

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
ANDER PRADOS OTAMENDI
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
NEREA YEREGUI BALDA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
IGOR OTERMIN EGUIA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA

BERTARATU EZ DIRENAK

IDAZKARIA

Joanes Aleman Olo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2024ko maiatzaren 28an arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Olo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2024-04-30EKO ETA 2024-05-14KO UDAL BILKURETAKO AKTEN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu diren 2024-04-30eko eta 2024-05-14ko bilkuretako akten inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak aktak bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu ditu.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Ainhoa Beraza Elizondo

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko maiatzaren 6an, 23/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Oihuka gela, frontoia eta patioa erabiltzeko baimena ematea uztailaren 2tik abuztuaren 2ra goizeko 10etatik 14etara Euskara zerbitzuak Dindaia Funfazioarekin batera antolatu dituen jolas tailerretarako .

2. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko maiatzaren 8an, 24/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2024ko martxoaren 27an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

3. 2024/2025eko kurtsoko egutegia eta ordutegia

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko maiatzaren 16an, 25/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2024-2025. kurtsorako Sorgintxo Haur Eskola haur hezkuntzako lehenengo zikloko zentroko ordutegia eta egutegia onartzea.

4. Juan Antonio López Vallés

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko maiatzaren 17an, 26/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Juan Antonio López Vallesi hirigintza lizentzia ematea Beteluko Martinmeltxenean ate bat egiteko.

5. Julio García La Torre

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko maiatzaren 20an, 27/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Julio García La Torreri hirigintza lizentzia ematea Beteluko Balarreneako beheko plantan hormigoizko zolata egiteko.

6. Patxi Arrizabalaga Sala

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko maiatzaren 20an, 28/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: . Hirigintza lizentzia ematea Patxi Arrizabalaga Salari Beteluko 2. Poligonoko 68. Lursailean dagoen Errota etxean teilatua berritu eta fatxadak margotzeko.

7. Xabier eta Joseba Oreja Balerdi

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko maiatzaren 22an, 29/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Xabier eta Joseba Oreja Balerdiri ur-hornidurako hartunea egiteko baimena ematea, Kale Nagusiko 8. Zenbakiko A letrako eta B letrako etxebizitzetarako.

3. BETELUKO 1-234 LURZATI SOBERAKINA JABE MUGAKIDEARI ZUZENEAN BESTERENTZEA

Lorenzo Zubillaga Goicoecheak eskaera aurkeztu zuen 2020ko abenduaren 14an Beteluko 1. Poligonoko 234. Lursaila (oraindik sortu gabea) eskuratzeko. Lorenzo Zubillaga Goicoechea lursail horren inguruko lursailen jabea da.

Beteluko Udalak desafekzio espedientea burutu zuen eta ondorioz, ondare ondasun moduan kalifikatu zuen.

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 134. artikuluan –Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko foru-legea da hori, ALFL–, nola urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 128. artikuluan xedatu denarekin bat etorriz –foru-dekretu horren bidez Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onetsi zen, NELOA–, zuzeneko besterentzea egin daiteke.

Udaleko Zerbitzu Teknikoek txostena igorri zuten, espedientean jaso da, eta hortik ondorioztatzen da besterenduko den ondasunaren bidezko prezioa edo prezio zuzena 1.500,72 Eurokoa dela.

Indarreko udal-aurrekontuko baliabide arruntak, guztira, 595.500,00 € dira.

Urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 126. artikuluan arautu dena ere hartu behar da kontuan –Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onesten du foru-dekretu horrek, NELOA–.

Espedientean nahiko egiaztatu da ondasuna besterengarria dela ondare-izaera duelako, eta besterentzea komenigarria edo egokia dela.

2024ko martxoaren 5ean udalbatzak egindako bilkuran 1. Poligonoko 234. Lursaila zuzenean besterentzeko administrazio-espedientea bideratzea onartu zuen bai eta besterentzea arautuko duen baldintzen agiria ere. Akordioa 2024ko apirilaren 11eko 73 zenbakiduneko Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarri ondotik hogeï egun baliodunean egon zen jendaurrean. Epealdi horretan inork ez du inolako alegazio edo erreklamaziorik aurkeztu.

Horiek guztiak kontuan hartuta, udalbatzak, aldeko 6 botorekin, eta Lorenzo Zubillaga Goicoechearen abstentziorekin, beraz, korporazioko legezko kideen gehiengo osoak aldeko botoa eman duela,

ERABAKI DU

LEHENENGOA. Lorenzo Zubillaga Goicoechea jaunari adjudikatzea Beteluko 1. Poligonoko 234. lursaila zuzenean besterentzeko kontratua 1.500,72 euroko prezioarekin. Ondasuna udal-titulartasunekoa da, katastroko zenbakia 1-234 du eta ondare-izaera.

BIGARRENA. Udal honetako Nerea Yeregui Balda alkateorde andereari ahalmena ematea akordio hau formalizatzeko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

HIRUGARRENA. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, adieraziz zein errekurtsu jar dezakeen.

4. 1. POLIGONOKO 9. LURSAILAREN INGURUAN SOBERAN DAGOEN 795.88 M2-KO LURZATIA JABE MUGAKIDEARI ZUZENEAN BESTERENTZEA

Jose Ignacio Yeregui Arlanzónnek eskaera aurkeztu zuen 2023ko uztailaren 3an Beteluko 1. Poligonoko 9. Lursailaren inguruan dagoen 795,88 m²ko lurzattia eskuratzeko. Bera 1. Poligonoko 9. Lursaileko jabea da.

Beteluko Udalak desafekzio espedientea burutu zuen eta ondorioz, ondare ondasun moduan kalifikatu zuen.

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 134. artikuluan –Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko foru-legea da hori, ALFL–, nola urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 128. artikuluan xedatu denarekin bat etorriz –foru-dekretu horren bidez Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onetsi zen, NELOA–, zuzeneko besterentzea egin daiteke.

Udaleko Zerbitzu Teknikoek txostena igorri zuten, espedientean jaso da, eta hortik ondorioztatzen da besterenduko den ondasunaren bidezko prezioa edo prezio zuzena 7.958,80 €urokoa dela.

Indarreko udal-aurrekontuko baliabide arruntak, guztira, 595.500,00 € dira.

Urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 126. artikuluan arautu dena ere hartu behar da kontuan –Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onesten du foru-dekretu horrek, NELOA–.

Espedientean nahiko egiaztatu da ondasuna besterengarria dela ondare-izaera duelako, eta besterentzea komenigarria edo egokia dela.

2024ko martxoaren 5ean udalbatzak egindako bilkuran Beteluko 1. Poligonoko 9. Lursailaren inguruko 795,88 m²ko lurzattia zuzenean besterentzeko administrazio-espedientea bideratzea onartu zuen bai eta besterentzea arautuko duen baldintzen agiria ere. Akordioa 2024ko apirilaren 11eko 73 zenbakiduneko Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarri ondotik hogeiei egun baliodunean egon zen jendaurrean. Epealdi horretan inork ez du inolako alegazio edo erreklamaziorik aurkeztu.

Horiek guztiak kontuan hartuta, udalbatzak, aldeko 7 botoekin eta beraz, korporazioko legezko kideen gehiengo osoak aldeko botoa eman duela,

ERABAKI DU

LEHENENGOA. Jose Ignacio Yeregui Arlanzon jaunari adjudikatzea Beteluko 1. Poligonoko 9. Lursailaren inguruko 795,88 m²ko lurzattia zuzenean besterentzeko kontratua 7.958,80 euroko prezioarekin. Ondasuna udal-titulartasuneko da eta ondare-izaera du.

BIGARRENA. Udal honetako Lorenzo Zubillaga Goicoechea alkate jaunari ahalmena ematea akordio hau formalizatzeko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

HIRUGARRENA. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, adieraziz zein errekurtso jar dezakeen.

5. ETXABURUKO ETXEEN ARTEAN 443,17 M²-KO LURZATI SOBERAKINA JABE MUGAKIDEARI ZUZENEAN BESTERENTZEA

Beteluko Udalak txosten teknikoan S-a, S-b eta S-c izendatutako lursail soberakinak jabe mugakideei saltzeko asmoa du.

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 134. artikuluan –Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko foru-legea da hori, ALFL–, nola urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 128. artikuluan xedatu denarekin bat etorritik –foru-dekretu horren bidez Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onetsi zen, NELOA–, zuzeneko besterentzea egin daiteke.

Udaleko Zerbitzu Teknikoek txostena igorri zuten, espedientean jaso da, eta hortik ondorioztatzen da besterenduko den ondasunaren bidezko prezioa edo prezio zuzena 10.192,91 €urokoa dela.

Indarreko udal-aurrekontuko baliabide arruntak, guztira, 595.500,00 € dira.

Urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 126. artikuluan arautu dena ere hartu behar da kontuan –Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onesten du foru-dekretu horrek, NELOA–.

Espedientean nahiko egiaztatu da ondasuna besterengarria dela ondare-izaera duelako, eta besterentzea komenigarria edo egokia dela.

2024ko martxoaren 5ean udalbatzak egindako bilkuran S-a, S-b eta S-c izendatutako lursail zuzenean besterentzeko administrazio-espeditentea bideratzea onartu zuen bai eta best erentzea arautuko duen baldintzen agiria ere. Akordioa 2024ko apirilaren 11eko 73 zenbakiduneko Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarri ondotik hogeitun egun baliodunearan egon zen jendaurrean. Epealdi horretan inork ez du inolako alegazio edo erreklamaziorik aurkeztu.

Horiek guztiak kontuan hartuta, udalbatzak, aldeko 7 botoekin eta beraz, korporazioko legezko kideen gehiengo osoak aldeko botoa eman duela,

ERABAKI DU

LEHENENGOA. Antxon Buldain Arguiñarena jaunari adjudikatzea Beteluko S-a, S-b eta S-c izendatutako lurzatiak zuzenean besterentzeko kontratua 10.192,91 euroko prezioarekin. Ondasuna udal-titulartasuneko da eta ondare-izaera du.

BIGARRENA. Udal honetako Lorenzo Zubillaga Goicoechea alkate jaunari ahalmena ematea akordio hau formalizatzeko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

HIRUGARRENA. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, adieraziz zein errekurtsorik jar dezakeen.

6.- ETXABURUKO ETXEEN ARTEAN 35,00 M2-KO SOBERAKO LURSAILA ONDOKO JABEARI BESTERENTZEA

Beteluko Udalak txosten teknikoan S2 lursail moduan izendatutako lursail soberakinak jabe mugakideei saltzeko asmoa du.

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 134. artikuluan –Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko foru-legea da hori, ALFL–, nola urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 128. artikuluan xedatu denarekin bat etorriz –foru-dekretu horren bidez Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onetsi zen, NELOA–, zuzeneko besterentzea egin daiteke.

Udaleko Zerbitzu Teknikoek txostena igorri zuten, espedientean jaso da, eta hortik ondorioztatzen da besterenduko den ondasunaren bidezko prezioa edo prezio zuzena 805,00 Eurokoa dela.

Indarreko udal-aurrekontuko baliabide arruntak, guztira, 595.500,00 € dira.

Urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 126. artikuluan arautu dena ere hartu behar da kontuan –Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onesten du foru-dekretu horrek, NELOA–.

Espedientean nahiko egiaztatu da ondasuna besterengarria dela ondare-izaera duelako, eta besterentzea komenigarria edo egokia dela.

2024ko martxoaren 5ean udalbatzak egindako bilkuran S2 izendatutako lursaila zuzenean besterentzeko administrazio-espedientea bideratzea onartu zuen bai eta best erentzea arautuko duen baldintzen agiria ere. Akordioa 2024ko apirilaren 11eko 73 zenbakiduneko Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarri ondotik hogeit egun baliodunearan egon zen jendaurrean. Epealdi horretan inork ez du inolako alegazio edo erreklamaziorik aurkeztu.

Horiek guztiak kontuan hartuta, udalbatzak, aldeko 7 botorekin eta beraz, korporazioko legezko kideen gehiengo osoak aldeko botoa eman duela,

ERABAKI DU

LEHENENGOA. Francisco Javier Saralegui Otamendi jaunari adjudikatzea S2 izendatutako lurzattia zuzenean besterentzeko kontratua 805,00 euroko prezioarekin. Ondasuna udal-titulartasuneko da eta ondare-izaera du.

BIGARRENA. Udal honetako Lorenzo Zubillaga Goicoechea alkate jaunari ahalmena ematea akordio hau formalizatzeko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

HIRUGARRENA. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, adieraziz zein errekurtsio jar dezakeen.

7.- UR HORNIDURAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA

Udalbatzari proposatzen zaio ordenantza hauen artikuluen aldaketari hasierako onespena ematea.

- UR HORNIDURAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

14. ARTIKULUA

1. 5. artikuluko a), b), c) eta d) idatz-zatietan aurreikusitako ordainarazpenak sei hilean behin ordainduko dira.

2. Artikulu bereko e) idatz-zatian aurreikusitako ordainarazpena erabiltzaileak ordainduko du sortzen den unean.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, espedientea jendaurrean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, herritarrek eta legezko interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharra aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erregelamenduzko epean erreklamaziorik aurkeztu ez bada, ordenantzen aldaketak behin betiko onartutzat joko dira.

Alkateak erabakia bozkatzera ekarri, eta Udalbatzak aho batez onartu du.

8.- 2/2024 AURREKONTU ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA

Udalbatzari ondorengo 2/2024 aurrekontu aldaketaren espedientearen hasierako onarpena proposatu zaio:

1. Ezohiko kreditua: 1 1611 6230002 "uraren kontrolerako gailua": 1.200,00 euro.

"Gastu orokorretarako gerakina eta eragindako baliabideak daudelako" 1 87000 sailarekin finantzatua: 1.200,00 euro

2. Ezohiko kreditua 1 4590 6250001 "Hesiak erosi": 1.800,00 euro.

"Gastu orokorretarako gerakina eta eragindako baliabideak daudelako" 1 87000 sailarekin finantzatua: 1.800,00 euro

Aldaketa Nafarroako Toki Ogasunaren 2/1995 Foru Legearen 212 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera egin da.

Nafarroako Toki Ogasunari buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 212. eta hurrengo artikuluen arabera eta Beteluko Udaleko 2024ko aurrekontuaren exekuzio oinarrien 9. Oinarrien arabera, espediente hau jendaurrean izanen da 15 egun naturalez udal idazkaritzan, nahi duenak aztertu ahal izateko eta hala nahi izanez gero, egoki ikusten dituzten erreklamazioak egin ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, honela onarturik dagoen espediente hau behin betikotzat joko da.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren guztiek aho batez onartu egin dute.

9. BETELUKO UDALAREN ETA MANANTIALES BETELU SAREN AKORDIO PROPOSAMENAREN ONARPENA

2024-05-02an, Beteluko Udalean bilera bat egin zen alkate, hirigintzako zinegotzi eta udal arkitektoa Maria Urmeneta Fernándezekin, Udalaren aldetik, eta Erald Höltrust eta Fernando Martínez Chocarro enpresaren abokatuarekin, Manantiales de Betelu SAREN aldetik. Era berean, Udalak proposatutako akordio bat egiteko aukera aztertu eta onartu da, izaera ludiko eta turistikoko udal-espazioak handitzeko eta sendotzeko interesei ekiteko, hau da, Manantiales de Betelu SAREN jabetzakoa den 2. poligonoko 69. partzelaren zati bat eta 2. poligonoko 902. partzela osoa lagatzeko. Enpresak, erabaki zen bezala, honako akordio-proposamen hau aurkeztu du formalki:

- *Beteluko Udalari doan lagatzea Beteluko Katastroko 2. poligonoko 69. partzelaren zati baten jabetza. Partzela hori bat dator partzela-zedulan B eta F letrekin grafiatutako landa-eremuarekin. Hori formalizatzeko, udal arkitektoak egindako plano georreferentziatua egin beharko litzateke, eta bertan mugatuko genituzke zatiak.*
- *Iturria eta biltegia (eraikin bera osatzen dute) dauden Dama Iturri iturburuari dagokion eremua, partzela-zedulan C letrarekin grafiatua, egin beharko litzatekeen bereizketan Manantiales de Betelu SAREN jabetzakoa izango litzateke, eta hark Beteluko Udalari baimena emango lioke biltegi gisa erabiltzeko eta jendeak, oro har, iturburura bisitak egiteko dagokion zortasunaren bidez. Hori formalizatzeko, udal arkitektoak egindako plano georreferentziatua egin beharko litzateke, eta bertan mugatuko genituzke zatiak.*
- *Beteluko Udalari doan lagatzea Beteluko Katastroko 2. poligonoko 902. partzelaren jabetza.*
- *2. poligonoko 69. partzelan, Beteluko Udalaren alde lagako eta bereiziko litzatekeena, Manantiales de Betelu SAREN jabetzakoa den partzelaren zatiaren alde, bide-zortasun bat eratu beharko litzateke, egun dagoen bidetik igarotzeko, bai eta eroanbideen zortasun bat ere, gaur egun iturburuetatik lantegiraino ura biltzeko hodiak igarotzen direna.*
- *Fabrikarekin zintzilikatuko lukeen eremu berezian, egungo egurrezko hesiarekin itxi beharko litzateke, eta Udalak herriarentzako atea edo pasabidea jarri beharko luke, "Iturri Santu" iturburuko iturrirako sarbidea izateko.*
- *Katastroko 2. poligonoko 69. partzelatik igarotzen den Araxes ibaiaren ezponda konpontzeko beharrezkoak diren jarduketek eragindako gastu guztiak Beteluko Udalaren kontura izango dira, eta Beteluko Udalak bere gain hartuko du beharrezko mantentze-lanak egitea. (Horrek eragin du Alkatetzaren 2023/78 ebazpenean egindako errekerimendua).*
- *Beteluko Udalak Dama Iturri iturburua dagoen biltegia konponduko du; izan ere, eraikin bakarra da, bi gunetan banatua.*
- *Eskritura publikoak lagatzeak, bereizteak eta formalizatzeak eragindako gastu eta zerga guztiak Beteluko Udalaren kontura izango dira.*

Udalbatzak honako hau erabaki du aho batez:

Proposamena ontzat jotzea eta beharrezko espedientea bideratzea, ezarritako kargen balioak ez duela jasotako lursailen balioa gainditzen egiaztatzeko.

10. FAKTUREN ONESPENA

Comercial Fervis	Garbiketa produktuak	28,31 €
Lyreco	F. Bulego materiala	113,50 €
Angelines Carrillo Ruiz	F.A 10/2024 Apirileko uraren kontrola	90 €
Rekalde Zurgindegia	F. 710/24 Frontoiko kristalaren konponketa	205,30 €
Wikai	F. 1/8042 Apirileko gastua	112,17 €
Zigari Elkarte	2024-4-27ko auzolaneko hamaiketakoa	39,15 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 22-2024 Apirileko urtegiko ardura	136,13 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 23-2024 Presako belarrak moztu	211,75 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F.24-2024 Parkea desmontatu,,...	121 €
Goienar	Udaletxeko apirileko gastua	829,24 €
Goienar	Eskolako apirileko gastua	758,75 €
Serlimpia	F. 240136 presako komuna	71,39 €
Lorenzo Otamendi Artola	F. 91 Apirileko mugikortasuna	119,20 €
IDM Life Equipment Corporacion.	F. 734 Defibriladorearen apirileko manten.	128,84 €
Chocarro y Urmeneta	F. Emit 2421	968 €
Maite Garcia Satrustegui	F. A1/126 Auzolaneko hamaiketakoa	17,36 €
Iberdrola	C/ Mayor 7-2 ezker	11,13 €
Araizko Udala	2023ko ETB antenaren gastua	151,97 €
Araizko Udala	2023ko Gizarte zerbitzuen irteerak	451 €
Sumi. Rioverde	Presako pasarelaren malla	175,15 €
A&LOK	Giltzen kopiak	22,40 €
Iberdrola	Urberoa apirileko kontsumoa	7,94 €
Iberdrola	Argiztapen publikoa apirileko kontsumoa	240,78 €
Iberdrola	Argiztapen publikoa apirileko kontsumoa	159,72 €
Microcom	F. 24000958	1.141,20 €
Iñaki Eraso Ochotorena	F. 29.	439,71 €
Kirolmank	2024ko kuota	5.946 €

Rodriguezpeleta arquitecto	F. 2024/15	665,50 €
Ofico	F. F242017	161,37 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Angelines Carrillo Ruiz	A 11/2024	50,75 €
Maite Garcia Satrustegui	F. A1/125, apirileko Haur eskolako bazk.	722,80 €
	DENETARA:	14.297,51 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 81.2 artikuluari jarraiki, Lehendakariak, premiazkotasunez, gai zerrendan ondorengo puntuen inguruko akordioak sartzeko eskatu du: "Mahaiak eta aulkiak erosteko Beteluko Lagunartearekin hitzarmena".

Premiazkotasunaren zioak ondorengoak dira: Mahaiak eta aulkiak erostea presazkoa da Beteluko festetarako beharko baitira.

Lehendakariak gai ordenean sartzeko akordioa berrestera ekarri eta udalbatzan diren kide guziten aldeko bozkarekin onartu da. Aldi berean, aldeko bozka hori udalbatzako legezko udalkideen gehiengo osoa da.

11. MAHAIK ETA AULKIAK EROSTeko BETELUKO LAGUNARTEAREKIN HITZARMENA

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, ondoko hitzarmen hau ekarri du bere onarpenerako:

"BILDUTAKOAK: Alde batetik, NANarekin, G31822984 IFK duen Beteluko Lagunartearen ordezkari gisa, gaitasun juridiko osoa duena.

Eta

Bestetik, Lorenzo Zubillaga Goicoechea jauna (NAN: 29155310G), Beteluko Udaleko alkatea (IFZ: P3105500G), Beteluko Udalaren ordezkaria, Joanes Aleman Ollo idazkariak lagunduta (NAN: 72814650P), egintzaren fede ematen duena.

AZALDU DUTE

Lehenengoa: Beteluko festetarako eta urtean zehar izaten diren beste ekitaldi batzuetarako aulkiak eta mahaiak behar izaten dira.

Bigarrena: Ez Beteluko Udalak ez eta Beteluko lagunarteak ere ez dute aulki eta mahairik. Hori dela eta, beste herriren batetik ekarri behar izaten dira horrek dakartzan gastu eta azpiegitura arazoekin.

Hori guztia ikusita, alderdiek:

ADOSTU DUTE

BAT: Beteluko lagunarteak 40 mahai eta 350 aulki erosiko ditu.

BIGARRENA: Beteluko Udalak 6.000 euroko dirulaguntza emanen du. Dirulaguntza hiru urtean 2.000 euro emanez egingen da, Beteluko Udalak Beteluko festak direla eta emandako ekarpenean 2.000 euroko igoera eginez alegia.

HIRU: Mahaiak eta aulkiak Beteluko Lagunartearen esku egonen dira. Beste norbaiten erabilerarako Beteluko Udalaren baimena beharko da.”

Hori ikusita, udalbatzak aho batez ondokoa erabaki du:

1.- Proposatutako hitzarmena onartzea.

2.-Beteluko Udaleko alkateari ahalmena ematea hitzarmenaren sinadura eta formalizaziorako.

12. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko zortzi eta erdiak direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.